

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Kultur Etxea (Basauri)**

Basauriko Udal Kultur Etxeko lan-kontratuko langile finko gisa Liburutegiko Laguntzaile lanpostuan kontratatzea, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren ondorioz, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera.

Basauriko Udal Kultur Etxeko Lehendakariak 488/2025 Ebazpena eman du 2025eko ekainaren 24an, eta honako hau xedatzen du bere ebazpen-zatian:

Lehengoa: María Carmen Irazu Pérez Liburutegiko Laguntzaile lanpostuaren titular gisa kontratatzeko baimena ematea (8.8 lanpostuaren kodea).

Bigarrena: Ebazpen hau hautatutako hautagaiari jakinaraztea, legez dagozkion erre-kurtsoak adierazita, eta jakinaraztea lan-kontratua formalizatu beharko duela hila beteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena: Kontratua formalizatu ondoren, dagokion enplegu-bulego publikoari jakinarazi beharko dio, hitzartu eta hurrengo hamar eguneko epean.

Laugarrena: Langileen legezko ordezkariari informazioa ematea, egindako kontratuen oinarritzko kopia bat emanez.

Bosgarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, webgunean eta iragarki-oholean argitaratzea, oinarri arautzaileekin bat etorritik.

Basaurin, 2025eko ekainaren 25ean.—Basauriko Udal Kultur Etxearen Lehendakaria, Berta Montes Beltrán